

11. atala BIDEZ BIDE

- *Jone! Askotan esan didazu lurreta ondo komunikatuta dagoela. Errepide honi buruz ari zinen? – Aritz N 634 errepideari begira zegoen.*
- *Beno, gaur egun bai, baina beste bide bat zen aspaldi garrantzitsuagoa.*

Errepide generalak bitan banatzen du gaur egun lurreta eta han zeuden Jone eta Aritz semaforoa berde jartzeko zain.

- *Aspaldi Gaztelako goi lautada eta Kantauri itsasoa bazten zituen bidea oso garrantzitsua zen. Montoi inguruan Ibaizabal gurutzatu, gaur egun Bixente Kapanaga izenez ezagutzen dugun kaletik igaro eta lurretako plaza ingurutik Goiuriara igotzen zen bidea. Han, Gallanda barrenetik Laixiar inguruetara pasa eta Maumeko ataritik lurretako lurretatik aldentzen zen bidea.*
- *Baina bide hori orain ez da erabiltzen. – Aritz harrিতuta zegoen.*
- *Ez. – Jarraitu zuen Jonek – XVIII. menderako bidea egoera txarrean aurkitzen zen eta Bilbotik Urduña zeharkatuta Gaztelara zihoan bideak garrantzia gehiago hartu zuen.*
- *Uste dut ulertu dudala bai.*
- *Bide hura erabiltzeari uzteak krisi ekonomikoa eragin*

zuen inguru honetan eta urte batzuk beranduago Durango eta Bilbo batzen zituen bide berria eraiki behar izan zuten. Orduan eraiki zuten Montoiko zubi berria.

- *Zergatik du Montoi izena Jone?*
- *Aurretik bertan zegoen zubiak 10 metro baino gehiagoko bi arku zituen, eraikitako berriak aldiz 3, 10 metro baino gutxiagokoak. Zubi mota horri “pontón” esaten ziztaion gazteleraz eta denboran zehar izena aldatuz joan da “Montón” bihurtzeraino. Horregatik deitzen diogu zubi inguruari Montoi.*
- *Ona! Eta hortik ematen diegu San Migel jaiari hasiera! – Gehitu zuen pozik Aritzek San Migel jaietako txupinazoa gogoratzuz.*

ARIKETA:

- Ezagutzen duzu marrazkiko lekua? Nola du izena?
- Hartu orri zuri bat eta marraztu Ibaizabal ibaia zeharkatzeko eraikiko zenukeen zubiak.

